

Hedabideak eta prentsaurrekoak, errepasorako zerrenda:

KOMUNIKABIDEEKIN HARREMANAK

- Prentsako solaskideen hizkuntza-profila jasota dugu.
- Prentsa-ohar, dossier eta antzekoak zein hizkuntza(ta)n bidali erabaki dugu: euskarazko medioei, euskal eremukoiei, kanpokoei...
- Medioetan nola parte hartu erabaki dugu:
 - Gure hitzaldia hizkuntza bakarrean egin; euskara bisibilizatu (azpitulatzeko aukera dute ikus-entzunezkoek)
 - Hizkuntza bakoitzerako hizlari ezberdinak proposatu.

PRENTSAURREKOA

- Prentsaurrekoan parte hartuko duten hizlariak euskarazko gaitasuna ere kontuan hartuta aukeratu ditugu.
 - Hizkuntza-gaitasun nahikoa ez badu, aurretik prestatu dugu hitzaldia.
 - Hitz bereziak, ahoskatzen zailak entrenatu egin ditugu
- Prentsaurrekoan hizkuntza bakoitzaren ahozko presentzia zein den erabaki dugu:
 - Dena hizkuntza bakarrean
 - Hizkuntza bakarrean, aldibereko itzulpenaren aukera emanda
 - Sarrera eta agurra hizkuntza bietan
 - Atalak banatuta: batzuk euskaraz, besteak gaztelaniaz...
 - Eduki guztiak errepikatu bi hizkuntzatan
- Aurkezpena egiteko erabiliko diren euskarriak zein hizkuntzatan egongo diren erabaki dugu:
 - Hitzartzea hizkuntza batean bada, aurkezpena beste batean
 - Aurkezpen osoa ele bietan
- Aretoko hizkuntza-paisaiari erreparatu diogu (atzeko kartelak, jarraibideak, etab.)

- Galderen erantzunak zein hizkuntzatan eta noiz egingo ditugun erabaki dugu.
 - Kazetariei nahi duten hizkuntzan galdetzeko adierazi diegu, ulertzeko gaitasuna badugu.
 - Galdera egindako hizkuntzan erantzun dugu gaitasuna badugu.
 - Lehenengo hizkuntza bateko galderak egin; ondoren besteak.

IRIZPIDEAK

- Alor honetan parte hartzen duten profesional guztiek argi dituzte erakundearen estrategia eta hizkuntza-irizpideak.
- Hizkuntzen erabileraren jarraipena eta ebaluazioa egiten dugu, eta hobetzeko neurriak ezarri.